



FUNTSEZKO JARDUERAK:

Ekoizpenaren aldetik, guk geuk egingo ditugu betaurrekoak. Betaurreko horiek esan bezala, adin desberdinetako bezeroentzako bideratuta daude beraz, diseinua zein betaurrekoen itxura, horren arabera egingo dugu. Guk betaurrekoak ekoiztu arren, hauek multiopticas konpaniaren bitartez salduko dira. Bertan guk egindako betaurrekoak saltzen jarriz.

Bestalde gure produktuak arrakasta izan dezan, publizitatea egingo dugu. Publizitatea, multiopticas konpainiaren bitartez egingo da. Hau da, bertan bertako pantailetan gure produktua nolakoa den eta zertarako balio duena azalduko dugu, honela, bezero gehiago lortuz.

Horrez gain, betaurrekoak egiteko produktuak, Goierriko enpresetatik lortuko ditugu. Esaterako betaurrekoak egiteko kristala, "Goierriko kristal eta betaurreko" enpresatik erosiko dugu, haizetakoa hau da, parabrisasak egiteko burdina, "Burdinetxe" enpresatik erosiko dugu eta bertan jartzeko gomak ere bertan erosi ahalko ditugu. Produktua egiteko behar ditugun makina guztiak, "Goierriko makinak" enpresatik erosiko ditugu. Ondoren guk produktua egin ahal izateko.

